

NAZIO-ARTEKO UNEA

Chypre buru-auste

Mundu zear diran asarreak abendats eta errian artean ugari entzun ditugu bukatutako aste ontan. Afrika'n, Asia'n eta beste lekuetan. Oietako bat egokitu zaigu ezagunen, Chypre'koa alegia, Europa'ren egalean arkitzen dalako.

Aspalditxan izan da ugarte au erri askoen mende egona. Azkenean ordea ingeles mende egona da. Eta E. O. K. A. izeneko talde baten indarrez, guda txiki baten bitartez joan bear izan zuten ingelesak... joan bai, baño itzez geiago beste ezer baño, izan ere bere militar lekuen gelditu ziran eta. Bañan E. O. K. A.'k bere nala etzuan oso-osoriki iritxi, arek nai zuana Grezia'rekin bat egitea zira bañan etzuan fortu. Ez bait dira Grezitarrak edo Ellade jatorrikoak Chypre'n bizi diran guztiak, turkoak ere aibeste ez izan arren zenbaitzuek badira ta. Eta or sortzen dira iskanbilla guztiak.

Hi estadu olek, Turkia ta Grezia'k, ugarte arkitzen diran bere erritakoei defenditu naitzen sortzen dira iskanbilla oien artean gelene-takoak. Badirudi bestela ugarte bizi diran bi erriak, berez eta aspalditx euren artean ondo konpontzen dirala. Beñepeñi «Le Monde» eguneroko periodistak, Chypre'ra reportajeak egitera joan danak ori dio. Badirudi chypretarrak be-

rak bakarrik pakean bizi nai dutena bañan kanpotarrak pakean zuten ez diotela.

Bi erri oien artean sortu diran asarreak eta burrukak zuzentzeko ingeles gudariak joan ziran. Eta badirudi ingelesak ez dituztela asko maite. Ortarako nazio-arteko gudariak bidaliz nai dituzte ingelesak eta amerikanoak. Eta gudari oiek N. A. T. O.'ko izan-go lirake, Grezi ta Turkia N. A. T. O.'ko kideak diralako, bañan ez det uste chypretarrei eta batez ere Chypre'ko grezitarrei geiegi gustatzen zaienik orrelako erabakirik. Eta ori erabakita ere ez litzake errez izan-go gudari oiek biltzea, N. A. T. O.'ko kide batzuek dabaneko ezezkoa eman dutelako, esate baterako Frantzia'k. Gañera Makarios gozaiak, Chypre'ko lendakariak, nazio-arteko gudariak bialtzen ezkerotan U. N. O.'ren agindupean nai litzuke. Asieran erabaki onen etsai amorratuak izan arren, azkenean ingelesak baiezkota eman dutela dirudi, Zertan geldituko ote da dana? Zoritxarrez «estadueren arrazoiak» agintzen duan garai batean bizi gera oraindik eta ez litzake baterre arritzekoa izango beñi eta berriro arrazol orregatik justizia, egia, elkartasuna ta libertadea menperatuta gelditzea.

ARREGI'tar RIKARDO'k

LABUR

ZANKOZA Xabierre'ko Aitajesuitak jakin-erazi dute, 1963'ko urte bitartean 130.000 erromesek bixitatu dutela Jaun-Done Antziko'ren (San Francisco) gaztelua. Beroletatik 85.000 naparrak izan dira, 9.900 giputzak, 6.905 Zaragoza'koak, 3.830 Madrillekoak eta 3.535 bizkaitarrak. España'ko legerriz kanpotik etorriak 5.135 izan dira, gelenak frantsesak. Pentsatzen dugu auen artean izango zela moltso ederrik Laphurta-arez, Benaparrez eta Zuberotarrez.

TUTRA (Tudela) Iri ontako Andra Mari'ren parrokian eta gañerako elizatan bataio, ezkontza eta illetagatik ezarriarik zeuden diru-ordaintzak baztertuak izan dira. Aurrerakoan eliztarrek bakoitzak gogo dutens emanen dute.

BILBAO Noiz-nai asko dira kanpoko portua zabaltzeko obrak. Beroien eginkizuna 507 milioi pesetakoa da eta sei urteren buruan bukatu bearra. Bañan, lendabiziko zabalketa ekinaldia lau urteren buruan bukatua egonen da, bertan ontziak atraka ahal dezatentzat.

IRUN. Aidebidez erren de Ameriketaruntz Jose Lekuona Labandibar Jaun Agurgarria, Atzerri-Misiotako Instituto Española'ren buruzagia. Iru ilabetean bixitatuko ditu Ibero-Amerikan eta California'n Instituto onek dituen Misiok. Txile'n bixitatuko du Jaun Manuel Santxez Begiristain —Irun'go semea au ere—arestian Iri onetan egondakoa Erroma'ko Konzilio Ekumeniko'tik bueltan.

IRUÑA «Ministerio de la Vivienda» delakoak, 1.130 diru-lagun-izazko etxe-bizitza siltza ditu iriburua onetan 1963'garren urtean, beraien presupostua 190 milioi pesetatik gorakoa izanik eta diru-laguntza 34 milioikoa. Iriburuz kanpoko Erreñu-lurretan baldintza auetan altxatuko etxeak 1.200 izan dira, diru-laguntza 36 milioikoa izanik.

GERNIKA Ibelitzaren azkeneko igandean Bizka'i'ko urburu zaharrari bixita egin zion Irene Holandako deritzan Errege-alaba Goitarrak. Besteren artean lagun-tzen ziren Holanda'ko enbajadorearen andreak, Luis Ibarra jaunak eta Jaurreri'ko (Señorio) agintariak. Batzar-Etxera arratsaldeko seiretan iritxi zen eta bertan arerra egin zioten Bizka'i'ko Aldundegiko —Diputazio'ko— Lendakariak, Gernika'ko Alkateak eta alkate-ordekoak. Batzar-Etxeko Artziburuak eta beste jaun batzuek. Santa Cecilia Kantari-taldeak bi euskal-kantu eman zituzten Errege-alabaren omenez.

GASTEIZ. Aurki Mitxelín etxeak uri ontako industriarako lur-saillean neumatik fabrika bat altxako du.

DONOSTIA. «Cementos Rezola» Lagunarteak lur-emaitza egin du Errekalde'ko aur-eskolak egin dituzten.

BILBAO Uri ontako Udaletzeko Estadistika-sailak jakin-erazi du 1960'tik 1963'ra bitartean 65 kale berri izan direla idekiak Bizka'i'ko uriburuan.

AFRIKA'REN NEGARRA

Badira gaiak ikuitzea bildurra ematen dutenak eta neretzat oien artean bat Afrika da. Bañan Afrika'n dabilzan gara beren gañean eziñ nindeke ixillik gelditu. Beti jokatu izandu det afrikatarren alde ta paternalismo jazkiekin jantzitako kolonialismo berrizaldeen kontra.

An gertatzen dana, Afrika osoan, nola alabait itz bakar batean esan bearko banuke «nahaspilla» dala esango nuke. Eriotzak, tribuen arteko gudaketb, eziñ dezateke beste izenik eduki. Gañera Afrika guztiko estadu gejenak partiduekiko demokrazia alde batera utzita sozialismo berezi batera jo dute, bañan ez sozialismo demokrata batera. Zer iritzi eman gertakizun guzti auetzaz? Arrazoi al dute kolonizadoreak agurogi utzi zituztela euren koloniak esaten dutenak? Egia ote da oraindikan afrikatarrek «sasi-jendeak» dirala? Zer iritzi eman galdera ta gertakizun guzti auetzaz?

Lenen gauz bat argitu dezadan. Afrika'n gertatzen dan guztia europarren bitartez jakiñ det emengo guztiak bezela. Berez oraingo gertakizunen gañean afri-

katarren iritzirik ez degu entzun. Iritzi bat, juzio bat, eman aurrean bi aldehi entzun bear zaie. Ori egin gabe iritzi ematen baldin badet iritzi ori ez da baterre sakona.

Alare seguru asko oker beñi baño geiagotan jokatu dute Afrika'ko agintariak eta erriak eta bear bada oso «sai-vaje» eran. Bañan ori dala ta kolonizadoreak joan bear al dute berriro aruntz? Ez al dira oraingo gertakizun auk kolonialismoaren ondoren txarrak ondoren adierazten dutenak? Aspaldi, bañan beñi gutxienean itzegiterik al izan nuan unibersitario beltz batekin eta kolonialismoaren errurik aundiena auxen zala esan zidan «kolonizadoreak Afrika'ra joan direnean afrikatarrek gizonduta ta agintaritzarako beren buru jabe izateko prestatu bearrean diru otera besterik ez dute egiñ, gero afrikatarren asarrearen zurrumbilloa gañetzen asi zanean, korrika ta presaka askatasuna eman». Eta oso-osoa uste det arrazoiak zeukana.

A'tar R'k

MUNDUAN ESATEN DANA

NOVA MYSL (Praga'koa, komunistena):

«Eleizaren politika» komunisten iritzian

«Eleizaren politikatzaz daukagun jokaera bere thesisen gañean egin dezan azterketatik ateratakoea da. Ez daukagu dudarik politika au kapitalismoaren itzulpena dala jakitako, bañan ez degu uste zuzen zuzen burgesi talde baten iritziak eta interesak azaltzen ditunik. Eleizaren politikak autonomi bat dager, istorian barruan zabaldukatkoa ta talde bezela bere interes bereziak dituana. Orregatik munduaren aldaketak dirala ta errea-

litateari dagokionez jokaera jatorrak arteko aña bada. Orrela elkar-izketak bidea iriki ditek (Eleizaren eta komunisten artean) prolema batzuei dagokionez, esate baterako, guda ta pakearen prolemari dagokionez.

LA CROIX (Paris'koa, kristauna):

Egypto'ko sozialismoarengan aldaketa

«Orain erabakitako sozialismoak baliozkoa izaten jarraitzen du. Bañan beste errei etzale onartu eraziko erboluzioaren bitartez balizik eta ejenplu bezela jarriko zale, jarraitu bear dan ejenplu bezela».

Zizki-mizkiak

Gure ezterak duan lanik nagusia, ez da ogia irabaztea; mokau bakoitza nola gozoago egin asmatzea, balizik.

Ezitzeko zailleak, ardoak, emakumea ta kantua omen-dira... Lenengoa, zailena, ta urrenak aren ondoren, dauden bezela.

Aurrerapena, antziña oso ongarri omen-zan. Gaur, gelegi luzatu da on egiteko.

Aurrak, erantzunik aditu gabe, gurasoei galdezka asten dira. Azkeneko, gurasoen esanik entzuteke errantzuten ikasten dute.

Burutapen berri bat itotzeko, ez da inosokeria añaikorik.

Guzia ongi atera nairik ari geranean, zerbait oker dabil, noski.

Gure utsegite nagusi bakarra, egoneziña da. Egoneziñak jaurtiki zuan gizona Atsegin-tokitik, Paradisu-tik. Egoneziñak gauzka ara itzuli ezinik.

Lana laburtzeko asmatu diran makiña guztiak erosiako ba-genitu, aiek ordaintzeko, bizi guztiko lana ez genduke naikoa izango. Orrenbestez, igalduta diru makiña oiek.

Otoitza: «Jauna! gurekin orren esku-zabala izan zeran ezkerre, iguzu bes-

te gauza bat ere: Esker oneko biotza!»

Arratsalde otz eta euritsua zan. Nere etxeko lanak burutzen ari nintzala, orra nun ikusten dedan elurtearen inpernutik eiztari bat sortzen. Dena elurrez estalla zegoan. Eldu bezin laster, lurrera bota zuen eskuan zekarren eizea.

—Eize ederra egualdiari arpegi egin diotzulako —esan nion.

—Ez det poz txikia izan, zure etxeko argia ikusi dedanean —erantzun zidan emakume-abotsak.

—Jaungoiko maitea! Nundik norra zabiltz, Clark andre ori? —esan nion larri— Oraindik gaixo-etxean zifala, uste nuan.

—Bai zera! Atzo bialdu nifuan medikuak andik; baiña aragi geiago jateko agindu zidan.

Harvard'ko Unibersidadea botatzen ari ziran. Langille batengana urreratu nintzan, eta onek esaten dit: «Etxe au jasotzen emen lan egin nuan. 1929'garren urtea zan, eta orduan irugei zentimo ordaintzen zidaten orduko etxea jasotzeagatik. Orain etxea botatzeagatik, orduko iru dolar ordaintzen dizkidate».